

2016/05/03an EGINDAKO EZOHIKO OSOKO BILKURA .

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 03/05/2016.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramón Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maria Purificación Regidor Varela  
Maite Zubia Atxaga  
Josu Miren Ezkurdia Santamaria  
Maite Uribe Beristain  
Aitor Zubizarreta Alegria  
Aintzane Agiriano Errasti  
Edorta Barandiaran Garcia  
Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza  
Rafael Bernal Gato

Idazkaria

Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2016ko maiatzaren 3an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, ezohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ezin dela etorri adierazi du Mainer Landa andreak.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 3 de mayo de 2016, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente José Ramón Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. Excusa su asistencia Mainer Landa.

## **1.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.**

2016ko apirilaren 28ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Berriaz eman da 1/2016, 2/2016 eta 3/2016 kreditu aldaketa espedienteak onartzeko Alkate erabakien berri.

## **2.- BAKE EPAILE TITULARRA IZENDATZEKO PROPOSAMENA.**

Bake epaile titularra eta ordezkoa aukeratzea Udaltzarrari dagokio.

2016ko otsailaren 23an Udaltzarrak hautaketa irizpideak onartzea erabaki zuen eta lehiaketa deitu zen 2016ko martxoaren 2ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (41. zenbakia) argitaratutako iragarkiaren bidez, eta baita Udaletxeko iragarki oholean eta epaitegian jarritako iragarki bidez ere.

Eskaerak aurkezteko 15 eguneko epean 2 eskaera aurkeztu ziren.

Alegatutako merituak baloratuta, Epaimahai kalifikatzaileak egindako proposamenaren eta Gobernu eta Finantza batzorde informatzailearen diktamenaren arabera, Udaltzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

*“Miren Pilare Carrillo Amuchastegui andrea Eskoriatzako bake epaile titular eta Jon Iregui Ortiz de Zarate jauna ordezkoko epaile aukeratzea eta horien izendapena proposatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Goreneko Gobernu-aretoari; eta horrekin batera, proposatutako epaileen inguruabarren berri ematea”.*

## **3.- DOKUMENTUAK EBALUATZEKO TAULAK ONARTZEA. TAULA HORIEK DOKUMENTUAK BALIOESTEKO ETA AUKERATZEKO BATZORDEAREN (DOBAUBA) IRIZPIDEAK JASOTZEN DITUZTE DOKUMENTU-SERIEAK SUNTSITZEKO ETA GORDETZEKO.**

Dokumentuak Balioesteko eta Aukeratzeko Batzordeak (DOBAUBA) onartutako dokumentuak ebaluatzeiko taulak jasotzen dira ondorengo aginduetan. Taula horietan zein agiri-serie gorde beharko diren artxiboetan eta zeintzuk sutsitu beharko diren arautzen da.

*AGINDUA, 2011ko uztailaren 11koa, Kulturako sailburuarena, dokumentuak ebaluatzeiko taulak onartzen dituena.*

*AGINDUA, 2012ko maiatzaren 3koa, Kulturako sailburuarena, dokumentuak ebaluatzeko taulak onartzen dituena.*

*AGINDUA, 2012ko urriaren 31koa, Kulturako sailburuarena, dokumentuak ebaluatzeko taulak onartzen dituena.*

*AGINDUA, 2013ko urtarrilaren 28koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, dokumentuak ebaluatzeko taulak onartzen dituena.*

*AGINDUA, 2013ko ekainaren 3koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, dokumentuak ebaluatzeko taulak onartzen dituena.*

*AGINDUA, 2015eko maiatzaren 20koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, dokumentuak ebaluatzeko taulak onartzen eta aldatzen dituena.*

Hau dela eta, artxibiko arduradunak eta Gobernu eta Finantza Batzorde Informatzaileak aipatutako aginduen onarpena proposatu dute.

Proposatutakoarekin bat etorritz, aho batez erabaki da :

Arestian aipatutako Dokumentuak Ebaluatzeko Taulak onartzea, Eskoriatzako Udal Artxiboko dokumentazioa aztertu eta gero, serie dokumentalak suntsitzeko proposamena egin ahal izateko.

#### **4.- HAINBAT DOKUMENTU-SERIE SUNTSITZEKO ERABAKIA.**

Dokumentuak Balioesteko eta Aukeratzeko Batzordeak (DOBAUBA) onartutako dokumentuak ebaluatzeko taulak jasotzen dira ondorengo aginduetan. Taula horietan zein agiri-serie gorde beharko diren artxiboetan eta zeintzuk suntsitu beharko diren arautzen da.

- *AGINDUA, 2011ko uztailaren 11koa, Kulturako sailburuarena, dokumentuak ebaluatzeko taulak onartzen dituena.*
- *AGINDUA, 2012ko maiatzaren 3koa, Kulturako sailburuarena, dokumentuak ebaluatzeko taulak onartzen dituena.*
- *AGINDUA, 2012ko urriaren 31koa, Kulturako sailburuarena, dokumentuak ebaluatzeko taulak onartzen dituena.*
- *AGINDUA, 2013ko urtarrilaren 28koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, dokumentuak ebaluatzeko taulak onartzen dituena.*
- *AGINDUA, 2013ko ekainaren 3koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, dokumentuak ebaluatzeko taulak onartzen dituena.*

- *AGINDUA, 2015eko maiatzaren 20koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, dokumentuak ebaluatzeko taulak onartzen eta aldatzen dituena.*

Artxiboko arduradunak, arestian aipatutako Dokumentuak Ebaluatzeko Taulak onartzeko proposamena egin zuen, Eskoriatzako Udal Artxiboko dokumentazioa aztertu eta gero, serie dokumentalak suntsitzeko proposamena egin ahal izateko.

Hori guztiori dela eta artxiboko arduradunak eta Gobernu eta Finantza Batzorde Informatzaileak egindako proposamenekin bat etorritik, aho batez erabaki da Eskoriatzako Udalaren artxiboan dagoen serie dokumental hauek suntsitzea.

| <b>Dokumentu-serieak</b>   | <b>Kopurua</b> |
|--|----------------|
| 0146 egoitza-zentroetan aldi baterako egonaldietarako espedienteak (2003)      | Ale bat        |
| 0145 egoitzan behin betiko lekua eskuratzeko espedienteak (1984-2010)          | 56 ale         |
| 0142 gizarte larrialdietarako udal etxebizitzaren espedienteak. (1982-2010)    | 59 ale         |
| 0148 araututako guneetan aparkatzeko bereizgarria izateko baimena (1990-2010)  | 14 ale         |
| 0100 Etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren espedienteak. (1984-2010)              | 34 ale         |
| 037 Oinarrizko errentaren laguntza eskatzeko espedienteak (1996-2009)          | 25 ale         |
| 0143 kotizaziorik gabeko pentsioen espedienteak. (1991-2009)                   | 17 ale         |
| 017 Laguntza teknikoak edota espezializatuak eskatzeko espedientea (1997-2010) | 48 ale         |
| 021 Telelaguntza-zerbitzua eskatzeko espedientea (1989-2013)                   | 30 ale         |

|  |         |
|--|---------|
|  |         |
| 035 Osasun-txartelaren eskabide-espedienteak (1990-2003)   | 4 ale   |
| 001 Trafikoaren alorreko, ibilgailu motordunen zirkulazioaren eta bide segurtasunaren alorreko arau-hausteen zehapen espedientea (1978-2011) | 87 ale  |
| 006 Nominen aldaketen espedientea (1971-2007)  | 15 ale  |
| 066 Administrazio Publikoaren ondare-erantzukizunaren espedienteak (2000-2010)   | 49 ale  |
| 0077 Data-orria / 0078 Kargu-orria   | 16 ale  |
| 0079 Hiri-lurren ondasun higiezinaren gaineko zergaren errolda (1978-1995)   | 13 ale  |
| 0080 Landa-lurren ondasun higiezinaren gaineko zergaren errolda (1980-1995)  | 11 ale  |
| 0082 Ordaintzeko aginduen espedienteak (1986-2005)   | 33 ale  |
| 0083 Diru-sartze aginduen espedienteak (1987-2005)   | 34 ale  |
| 0095 Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren errolda (1975-1995)   | 20 ale  |
| 0109/ 0110 Kreditu-aldaketen espedienteak (1980-2001)  | 39 ale  |
| 0114 Bankuko kontu-laburpenak.   | Ale bat |

|   |          |
|---|----------|
| 0124 Zerga fiskalak. / 0125 Errolda fiskalak. (1982-2004) | 64 ale   |
| 0160 Kirol ekitaldiak egiteko baimenak (2001-2011)        | 49 ale   |
| 0163 Iragarki-taulako ediktuak.(1993)                     | Ale bat  |
| 039 Obra txikien espedienteak (1944-2005)                 | 2812 ale |
| 012 Ordutegia kontrolatzeko espedientea                   | 2 ale    |

**5.- LANDA GUNETAKO UR HORNIDURA SISTEMA KOLEKTIBO EZ PUBLIKOETARAKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIEI JARRITAKO ALEGAZIOEI ETA HORIEK ONARTZEARI BURUZKO ERABAKIA.**

Eskoriatzako Udalerriko landa gunetako ur hornidura sare ez publikoen konpontze eta mantentze lanak finantzatzeko diru laguntzak emateko oinarriak hasiera batean onartzeko erabakiari alegazioak jarri edo iradokizunak egiteko jendaurrean jartzeko tramiteari hasiera emateko iragarkia argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2016ko martxoaren 2an.

Espedientean jasotzen denez, jendaurrean egoteko denboran honako alegazio hauek aurkeztu dira:

- Juan Carlos Bengoak eta Unai Salaberriak jarritako alegazioak (sarrera erregistro zenbakia: 677).

Epez kanpo honako alegazioak aurkeztu dira:

- Javier Villar Otaduyk jarritako alegazioak (sarrera erregistroko zenbakia: 692).

Aurkeztutako alegazioak ikusi eta aztertuta, eta baita idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ere; eta Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Juan Carlos Bengoak eta Unai Salaberriak jarritako alegazioak EZ ONARTZEA ondorengo arrazoiengatik:

## 1. alegazioari buruz:

Oinarrietako 4. artikulua, Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legeko 11. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, diru laguntzen onuradun bezala pertsonak jasotzen ditu, eta zehazkiago, pertsona juridikoak. Artikulu horrek berariraz aurreikusten du honakoa: "Oinarri hauetan aurreikusitako diru laguntzak eskatu ahal izango dituzte elizateetako edota landa auzoetako biztanleek osatutako irabazi asmorik gabeko elkarteek,...", eta baita ere honakoa: "Norbanakoek, norbanako bezala, ezingo dute diru laguntzarik eskatu".

38/2003 Legeko 11. artikulua diru laguntza bateko onuradun bezala honako hau definitzen du: "Diru laguntza emateko arrazoi den jardura egin behar duen pertsona edota diru laguntza jasotzea zilegi egiten duen egoeran dagoena izango da diru laguntzen onuraduna".

Hau da, diru laguntzen onuradun izan daitezke pertsona fisikoak edo juridikoak. Baserriek ez dute pertsona izaerarik (ez fisikoa ez juridikoa), eta beraz, ezin dira diru laguntzen onuradun izan.

Alegatzaileek "onuradun" figura "diru laguntzaren helburuarekin" nahastu dute. Hori ondorioztatzen da proposamena oinarritzeko arrazoiak aztertu eta gero.

Lortu nahi dutena, salbuespen gisa, ur banaketa sare ez kolektiboen konpontze edo mantentze lanak diru laguntzaren helburu izatea baldin bada, kontu hori oinarrietan aurreikusitako diru laguntzen helburuetan jaso beharko litzateke.

## 2. alegazioari buruz:

Diru laguntzei buruzko azaroaren 27ko 38/2003 Legeko 13. artikulua onuradun izaera lortzeko baldintzak ezartzen ditu. 2. ataleko e) paragrafoan berariaz aurreikusten da ezingo dutela onuradun izaera izan indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga betebeharrak edo Gizarte Seguntzarekikoak egunean ez dituzten pertsonak edo erakundeak.

Oinarrietan aurreikusitako baldintzak artikulua horretan du legeko oinarria, eta oinarri horietan aurreikusitako laguntzen onuradun izan daitezkeen elkartei baldintza hori kentzea, zuzenbidean erabat deuseza litzateke. Oinarriak zein betebeharrak egunean ez dituen pertsona bati (fisikoa edo juridikoa) diru laguntza emateko edozein ekintza erabat deusez izango litzateke zuzenbidean.

**Bigarrena.-** Javier Villar Otaduy jaunak aurkeztutako alegazioak ez onartzea epez kanpo aurkeztu direlako.

**Hirugarrena.-** Kontuan izanik, eta alegazioak ez onartzearen arrazoen kaltetan gabe, alegazioetako batzuk arreta handiagoaz aztertzea merezi dutela, eta egoki izanez gero, hasieran onartutako oinarrietan aldaketa esanguratsuak egin; batetik, behin betiko onarpenari buruzko erabakiak hartzeko prozesua ETETEA, eta, bestetik, dagokion batzorde informatzaileari agintzea indarrean dagoen antolamendu juridikoa urratzea eragingo ez duten alegazioetan planteatutako funtsezko kontuak baloratu eta diktamena egin ditzala.

*Gai zerrendako hurrengo gaien interesduna denez, Iñaki Kerejetak ez du parte hartu eztabaidan eta bozketan.*

#### **6.- ANTONIA GOROSTIZA ANDREAREN JABEGOKO LURZATIEKIN MUGA EGITEN DUTEN LURRETAN BIDEGORRIA MUGATZEKO EKINTZA ARGITZEKO AKTA ONARTZEA.**

2015eko apirilaren 21ean bidegorria mugatzeko egindako ekintzan -zehazki, Aingeru Guardatik Kuartuenerako bidegurutzeraino doan zatian- bidegorriari 3,60 metroko zabalera eman zitzaion 02618 eta 02619 lurzatiei aurretik igarotzen den bidearen kanpoaldeko ertz-mugatik.

Ekintza horretan ez zen kontuan hartu bidegorriak 02619 lurzatiara iritsitakoan GI-3310 errepidearen beste aldetik jarraitzen duela, eta beraz, beharrezkoa dela pasabide bat egitea alde batetik bestera igaro ahal izateko.

Horregatik, zati horren mugak eta bidearen ibilbidea zuzendu eta argiago zehazteko beharra ikusi da, eta baita bidegorriaren zati horrekin muga egiten duten Antonia Gorostiza andrearen lurzatiei muga finkatzeko ere.

Egindako jarduerak ikusita, eta 2016ko apirilaren 15ean egindako mugaketaren aktaren berri emanda, Gobernu eta Finantza batzorde informatzailearen proposamenarekin bat etorruta, Udalbatzarrak, bozketan parte hartu duten zinegotzi guztiek alde bozkatuta, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** 2016ko apirilaren 15ean egindako mugaketa onartzea, mugaketaren aktan eta horri erantsita doazen planoetan jasota dagoen bezala.

**BIGARRENA.-** Mugaketari buruzko erabaki hau espedientean interesdun izan daitezkeen guztiei jakinaraztea.

#### **7.- ZINEGOTZIAK KARGUARI UKO EGITEAREN BERRI IZATEA.**

Maidor Landa Ruiz de Azua andreak, Udal honetako EUSKAL HERRIA BILDU (EHBILDU) taldeko zinegotziak zinegotzi karguari uko egiteko aurkeztutako idazkia irakurri da.

Miriam Isasmendi Mata andreak, azken udal hauteskudeetan EUSKAL HERRIA BILDUREN (EH BILDU) zerrendako hurrengo hautetsi hautatuak, kargua hartzeari uko egiteko aurkeztutako idazkiaren berri ere eman da.



Udalbatzarrak uko egite horien berri jaso du, kargua bete gabe geratzen dela adierazi du, eta Hauteskunde Arautegi Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan aurreikusitako ondorioetarako, uko egite hori Hauteskunde Administrazioari jakinaraztea erabaki du.

***Aitor Zubizarretak, EHBILDUren izenean, adierazi du publikoki eskertu nahi diola Maider Landari zinegotzi bezala bai agintaldi honetan bai aurreko agintaldian egindako lana.***

***Esker ona adierazi dio ere Alkateak bere taldea osatzen duten zinegotzi guztien izenean.***

#### **8.- GARAPEN BIDEAN DAUDEN HERRIALDEEKIKO 2016KO LANKIDETZA PROGRAMAREN OINARRIAK ONARTZEA.**

Udalbatzarkide guztiek ezagutzen dituzte Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzaileak, onartu daitezen, proposatzen dituen oinarriak.

Bozkatu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI du:

**Lehenengoa.-** GARAPEN BIDEAN DAUDEN HERRIALDEEKIKO 2016KO LANKIDETZA PROGRAMA ETA DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK onartzea.

**Bigarrena.-** Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 egun baliodunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

**Hirugarrena.-** Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

**Laugarrena.-** Ahalmena ematea Alkate jaunari oinarriak onartu ondoren bertan araututako diru laguntzetarako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

#### **9.- EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ONARTZEA.**

Kultura, Euskara eta Kirola batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK hasiera batean onartzea.

**Bigarrena.-** Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 egun baliodunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

**Hirugarrena.-** Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, araudi hori behin betiko onartutzat joko da bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

## **10.- DATU PERTSONALEN FITXATEGI BERRIA SORTZEA: “HIZKUNTZA ERROLDA”.**

Datu Pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak bere 2. artikuluan ezartzen du lege hori aplikatuko zaiela euskarri fisikoan jasotako izaera pertsonaleko datuei, baldin eta euskarri horrek ahalbidetzen badu datu horiek tratatzea, bai eta sektore publiko zein pribatuak datu horien gainean gerogarrenean egin dezakeen erabilera-modalitate orori ere. Era berean, 20. 2 artikuluan ezartzen ditu fitxategiak sortzeko edo aldatzeko erabakiak jaso behar dituenak.

Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legeko 4. artikulua ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioek fitxategiak sortu, aldatu edo ezabatzeko erabakiak edo xedapenak derrigorrezko aipamen guztiak jaso beharko dituela eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo lurralde historikoko aldizkarian argitaratuko dela, fitxategia duenaren eginkizun edo aginpideak zein lurralde-eremutara iristen diren kontuan hartuta.

Aipatutako araudietan jasotako baldintzetan datu pertsonalen fitxategi berri bat sortzeko, Kultura, Kirolak eta Euskara batzorde informatzaileak Udalbatzarrari proposatzen dio honako hau onartzeko:

**Lehenengoa.-** Xedapen honen I eranskinean zerrendatutako datu pertsonalak jasoko dituen fitxategia sortzea. Fitxategi hori Datu Pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 20. Artikuluan jasotakora eta bertan aurreikusitako baldintzetara egokitu beharko da, eta baita lege hori garatzeko xedapenetan jasotakora ere.

**Bigarrena.-** 2/2004 Legea garatzen duen urriaren 18ko 38/2005 Dekretuko 2. artikuluan jasotakoa betez, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari horren berri ematea. Dekretu horretako 2. artikuluan jasotzen da Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek datu pertsonalen fitxategiak sortu, aldatu edo ezabatzeko egindako eragiketen berri emango diotela Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, Datuak Babesteko Erregistroan inskripzioa egiteko; eta horretarako, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak egindako eredu normalizatuaren bidez, sortu, aldatu edo ezabatzeko xedapen edo ebazpenaren kopia bidali beharko dela.

**Hirugarrena.-** Aipatutako fitxategia sortzeko iragarkia argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen den egunaren biharamunean indarrean sartu dadin .

## **ERANSKINA**

### **HIZKUNTZA ERROLDA FITXATEGIA**

1. Fitxategiaren izena: Hizkuntza errolda.
2. Helburua eta aurreikusitako erabilerak: Herritarrei udal komunikazioak eurek aukeratutako hizkuntzan helaraztea.
3. Zein pertsona edo talderen datu pertsonalak lortu nahi dira: Eskoriatzan erroldatuta dauden 18 urtetik gorako bizilagunak.
4. Datu pertsonalen jatorria eta horiek biltzeko prozedura:
  - 4.a) Datuen jatorria: interesduna bera.
  - 4.b) Bilketa: interesdunak berak betetako formularioak paperean edo euskarri informatikoan.
5. Fitxategiaren oinarrizko egitura eta datuen deskribapena:
  - 5.a) Oinarrizko egitura: fitxategian herritarra identifikatzeko datuak jasotzen dira, hala nola, abizenak, izena, NANA, helbidea eta hautatutako harreman hizkuntza.
  - 5.b) Datuen deskribapena:

Datu identifikatzaileak:

    1. Abizenak eta izena
    2. Nortasun Agiria
    3. Helbidea

Datu pertsonalak:

    1. Hautatutako harreman hizkuntza.

6. Datuak prozesatzeko erabilitako sistema: Mistoa
7. Komunikatuko diren datuak: Fitxategiaren titularraren departamentuei jakinaraziko zaie herritar bakoitzarekin zein hizkuntzatan komunikatu behar diren.
8. Hirugarrenei datuak lagatzea: Ez da aurreikusten.
9. Datuen nazioarteko transferentzia: Ez da aurreikusten
10. Fitxategiaren organo arduraduna: Eskoriatzako Udala.
11. Sarrera, zuzenketa, ezabaketa eta aurkaketa eskubidea zeinek gauzatu: Eskoriatzako Udalak.
12. Segurtasun neurriak: Oinarrizkoa

#### **11.- KIROL ARLOAN OHIZ KANPOKO JARDUERAK ANTOLATZEKO 2016. URTEAN EMANGO DIREN DIRU LAGUNTZAK ARAUTUKO DITUZTEN OINARRIAK ONARTZEA.**

Udalbatzarkide guztiek ezagutzen dituzte Kultura, Kirolak eta Euskara batzorde informatzaileak, onartu daitezen, proposatzen dituen oinarriak.

Bozkatu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI du:

**Lehenengoa.-** KIROL ARLOAN OHIZ KANPOKO JARDUERAK ANTOLATZEKO 2016. URTEAN EMANGO DIREN DIRU LAGUNTZAK ARAUTUKO DITUZTEN OINARRIAK onartzea.

**Bigarrena.-** Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 egun baliodunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

**Hirugarrena.-** Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

**Laugarrena.-** Ahalmena ematea Alkate jaunari oinarriak onartu ondoren bertan araututako diru laguntzetarako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

#### **12.- ABALA ITZULTZEKO HEMEN GARBIKETAK S.L. ENPRESAK EGINDAKO ESKARIA.**

2010eko abenduaren 21ean egindako udalbatzarrak Udalaren titularitateko hainbat ikastetxe eta udal bulego garbitzeko zerbitzua emateko kontratua esleitzea erabaki zuen, eta kontratu horretatik sortutako betebeharrak zuzen betetzeko bermetzat abala jarri zuen HEMEN GARBIKETAK S.L. enpresak 2010eko abenduaren 29an.

Kontratuaren indarraldia amaituta, HEMEN GARBIKETAK S.L.-k abal horren kitapena baimentzea eskatu du.

Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

- **Lehenengoa.-** BANCO SANTANDER banketxeak HEMEN GARBIKETAK S.L. enpresaren alde jarritako abalaren kitapena baimentzea. Abal hori 5.881,26 €-koa zen, eta “Eskoriatzako Udalaren titularitateko hainbat ikastetxe eta udal bulego garbitzeko” zerbitzua emateko kontratutik sortutako betebeharrak beteko zirela berme gisa jarri zen.
- **Bigarrena.-** Aipatutako abalaren originala interesdunari ematea abalaren kitapena izapidetu dezan.

### **13.- LANDA GUNEETAKO ARGITERIA SISTEMARAKO DIRU LAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK ONARTZEA.**

Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Landa guneeetako argiteria sistemarako diru laguntzak emateko oinarriak onartzea.

**Bigarrena.-** Oinarri horiek jendaurrean jartzea 30 egun baliodunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak oinarriak aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.

**Hirugarrena.-** Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, OINARRI horiek behin betiko onartutzat joko dira bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.

**Laugarrena.-** Ahalmena ematea Alkate jaunari oinarriak onartu ondoren bertan araututako diru laguntzetarako deialdia egiteko eta dagokion gastua baimentzeko.

#### **14.- AINGERU GUARDAKO DEPOSITU BERRIA KOKATUTA DAGOEN ETA ITARTEREN JABETZAKOAK DIREN LURREN ERABILERAREN LAGAPENA FORMALIZATZEARI BURUZKO ERABAKIA.**

Akta liburuan jasota dagoenez, Udalbatzarrak ondorengo erabakia hartu zuen 1984ko martxoaren 23an:

*3º.- Compra de terreno a D. José Antonio Itarte para construcción del Depósito de Aguas en Aingeru Guarda. A propuesta de la Comisión de Hacienda, el Pleno de la Corporación adopta por Unanimidad el siguiente acuerdo:*

*"Una vez conocida la superficie total afectada por la construcción del depósito de aguas según proyecto de "Nuevo Depósito en Eskoriatza, según Normas Subsidiarias" y realizada la medición correspondiente, se ha determinado una superficie total de 2.165 metros cuadrados que comprenden la superficie de las excavaciones más una franja de cuatro metros de anchura de contorno a su alrededor, por lo que estimándose necesaria la formalización de la compra-venta de terreno a D. José Antonio Itarte Zaragüeta, y como continuación del acuerdo adoptado en sesión de fecha 23 de junio de 1.983, el Pleno de la Corporación adopta los siguientes acuerdos:*

*1º.- Autorizar la segregación de la parcela que se compra de 2.165 metros cuadrados, que linda en todo su contorno con su finca matriz, de dicha finca matriz que viene determinada en el Catastro de Rústica de esta localidad con los siguientes datos: Polígono 3, parcela 460.*

*2º.- Comprar a D. José Antonio Itarte Zaragüeta el terreno de 2.165 metros cuadrados de superficie al precio de 35 pesetas metro cuadrado lo que supone un importe total de 75.775 pesetas.*

*3º.- Facultar al Sr. Alcalde Presidente D. Julián Urzelai Ondona para la formalización de cuantos documentos sean necesarios para llevar a buen esta compra-venta."*

Lur horietan ondoren AINGERU GUARDAKO DEPOSITU BERRIA eraiki arren, erosketa erabakia ez zen gauzatu. Udalak Itarte jaunaren jabetzako lurzatia erabili du inolako kontraprestaziorik gabe eta hori legezkotzeko inolako titulurik gabe.

Jose Antonio Itarte Zaragüeta jaunak ez du nahi, gaur egun, lurraren jabetza eskualdatzerik, eta horren erabilpena Udal honi doan lagatzeko prest dago honako baldintzarekin: ur depositua bertan jartzeko erabiltzea.

Aurrez esandako guztiarengatik, aspalditik datorren egoera formalki legeztatzeko, eta Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** Jose Antonio Itarte Zaragüeta jaunaren jabetzeko lur zatia, ondoren zehaztasunez deskribatuko dena, doan lagatzea onartzea denbora muga gabe, eta baldintza zehatz honen pean: ur depositua bertan jartzeko erabiltzea.

1. Kokapena: Aingeru Guardako ingurua (03 460)
2. Azalera: 632,95 m<sup>2</sup>
3. Mugak:

Iparraldea: 03 poligonoa, 460b lurzatia eta 3 poligonoa, 460d lurzatia.

Hegoaldea: 03 poligonoa, 460d lurzatia.

Ekialdea: 03 poligonoa, 460d lurzatia.

Mendebaldea: 03 poligonoa, 460b lurzatia.

4. Katastroko erreferentzia: 3 poligonoa, 460c lurzatia + 03 poligonoa, 460d lurzatiaren zati bat + 03 poligonoa, 460b lurzatiaren zati bat.

**BIGARRENA.-** Lurraren jabeari errekerimendua egitea lagapen honetan jasotakoa dokumentu pribatu batean formalizatzeko.

#### **15.- 4. ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA ONARTZEA.**

Kredituak aldatzeko 4. espedientea irakurri da. Kreditu aldaketa hori kreditu gehigarri bidez egingo da eta eragina du UDAL honetako aurrekontuan.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena ikusita, bototara jarri da proposamena.

Bertan dauden zinegotzi guztien aldeko botoarekin, Plenoak honako hau erabaki du:

**Lehenengoa.-** UDAL honetan indarrean dagoen ekitaldiko aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarri bidez kredituak aldatzeko 4. espedientea onartzea, egindako proposamenaren eta ondorengo kapitulukako laburpenaren arabera:

**GASTU PROPOSAMENA ETA KREDITU ALDAKETA**

| AURREKONTU<br>APLIKAZIOA | IZENA                                    | HASIERAKO<br>KREDITUA | GEHIKUNTZA        | AMAIERAKO<br>KREDITUA |
|--------------------------|--|-----------------------|-------------------|-----------------------|
| 0400.421.335.10.01       | APORTAZIOA:LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA       | 53.524,82             | 1.150,93          | 54.675,75             |
| 0100.227.162.10.13       | MANKOMUNITATEA:HONDAKIN BILKETA          | 197.728,37            | 1.878,00          | 199.606,37            |
| 0100.227.162.20.13       | MANKOMUNITATEA:HONDAKIN KUDEAKETA        | 38.763,96             | 103,26            | 38.867,22             |
| 0100.227.162.30.13       | MANKOMUNITATEA:HONDAKIN TRATAMEN         | 105.071,22            | 2.871,36          | 107.942,58            |
| 0400.628.332.10.01       | LIBURUAK                                 | 6.000,00              | 1.500,00          | 7.500,00              |
| 0100.212.160.00.01       | MANTENIMENDUA:ESTOLDERIA                 | 3.000,00              | 3.100,00          | 6.100,00              |
| 0400.226.335.00.08       | EKINTZAK:EUSKERA                         | 35.000,00             | 5.830,00          | 40.830,00             |
| 0400.625.342.20.99       | BESTELAKO LANABESAK:KIROLDEGIA           | 5.000,00              | 15.000,00         | 20.000,00             |
| 0100.211.153.40.01       | MANTENIMENDUA:UDAL BILTEGIA              | 77,77                 | 4.000,00          | 4.077,77              |
| 0100.601.153.00.05       | OLAETAKO LADERA KONTOLIDATZEA            |                       | 150.000,00        | 150.000,00            |
| 0200.421.920.00.01       | MANKOMUNITATEA:ADMON.OROKORRA            | 44.814,67             | 218,94            | 45.033,61             |
| 0400.721.324.00.01       | APORTAZIOA:MANKOMUNIT:HEZKUNTZA          | 260,48                | 0,04              | 260,52                |
| 0500.721.432.00.01       | APORTAZIOA:MANKOMUNIT:TURISMO            | 97,68                 | 0,02              | 97,70                 |
| 0200.721.920.00.01       | MANKOMUNITATEA:ZERBITZU OROKORRA         | 1.562,86              | 0,28              | 1.563,14              |
| 0100.721.162.20.01       | MANKOMUNITATEA:HONDAKIN KUDEAKETA        | 1.356,89              | 1.137,26          | 2.494,15              |
| 0100.734.337.70.01       | MUITXU ELKARTEA:DIRU LAGUNTZA:AUZOLOKALA | -                     | 9.750,62          | 9.750,62              |
| <b>GUZTIRA</b>           |  | <b>492.258,72</b>     | <b>196.540,71</b> | <b>688.799,43</b>     |

| Sarrerren kontzeptuak<br>edota gastuen partidak | Baliabidearen kontzeptua (11)           | Sarrera handiagoak<br>/ gastuetako bajak | Baliabidearen<br>partziala |
|---|---|--|----------------------------|
| 0200.870.000.00.01                              | Diruzaintzako gerakina:Gastu orokorrak. |  | 196.540,71                 |
| <b>GASTUEN GEHIKUNTZAK GUZTIRA</b>              |   |  | <b>196.540,71€</b>         |

**Bigarrena.-** Jendaurrean jartzea hamabost egunez nahi duenak erreklamazioak aurkez ditzan. Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betiko bihurtuko da, eta espediente honi Aurrekontu Orokorra onartzeko ezarritako gainontzeko tramite berak egin beharko zaizkio.

**16.- 5. ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA ONARTZEA.**



Udal honetako aurrekontuan eragina duen kredituak aldatzeko 19. espedientearen berri eman da. Kreditu aldaketa aurrekontuetako gastu partiden arteko kreditu transferentzia bidez egingo da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Toki Erakundeen Aurrekontu erregelamendua onartzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 28 a) eta 29 artikuluetan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Hazienda batzorde informatzaileak egindako aldeko txostena eta onepen proposamena irakurri dira.

Eztabaidaren ondoren bozketa egin da, eta zinegotzi guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Proposamenean zerrendatzen diren gastuen aurrekontu partiden arteko transferentzia bidez egin beharreko kreditu aldaketarako 5. espedientea onartzea, Udal honen aurrekontuari dagokiona, kapitulukako ondoko laburpenaren arabera:

**Gastu partidak: transferitu nahi diren kredituak (altak)**

| AURREKONTU<br>APLIKAZIOA | IZENA                                | HASIERAKO<br>KREDITUA | GEHIKUNTZA | AMAIERAKO<br>KREDITUA |
|--------------------------|--------------------------------------|-----------------------|------------|-----------------------|
| 0400.644.924.00.01       | APLIKAZIO INFORMATIKOAK:PARTE-HARTZE | -                     | 2.665,00   | 2.665,00              |
| 0100.603.153.20.02       | SANTA ANAKO ESPALOIA:ZOLADURA        | -                     | 12.500,00  | 12.500,00             |
| 0100.603.160.00.02       | SANTA ANAKO ESPALOIA:ESTOLDERIA      | -                     | 2.500,00   | 2.500,00              |
| <b>GUZTIRA</b>           |                                      | -                     | 17.665,00  | 17.665,00             |

**Gastu partidak: gehitu nahi diren kredituak (bajak)**

| PARTIDA            | IZENA                             | HASIERAKO<br>KREDITUA | GUTXIPENAK | AMAIERAKO<br>KREDITUA |
|--------------------|-----------------------------------|-----------------------|------------|-----------------------|
| 0300.622.333.10.01 | KULTUR ETXEKO SUKALDEA KONPONTZEA | 10.000,00             | 7.500,00   | 2.500,00              |
| 0100.481.165.00.01 | DIRU LAGUNTZA:BASERRIKO ARGITERIA | 10.000,00             | 8.808,46   | 1.191,54              |
| 0500.227.241.00.13 | MANKOMUNITATA:ENPLEGUA            | 14.394,73             | 1.356,54   | 13.038,19             |
| <b>GUZTIRA</b>     |                                   | 34.394,73             | 17.665,00  | 16.729,73             |

**Bigarrena.-** Egintza hau irmoa eta exekutiboa izanik bestelako tramite barik, Fondoak Interbenitzeko Zerbitzuak kontabilitatean adieraziko du onartutako kreditu aldaketa berehalako eraginarekin.

**17.- GAI ZERRENDAN GAI HAU SARTZEA BERRESTEA: UDAL ERAIKINAK GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEAGATIK (2016KO OTSAILAREN 16-TIK MARTXOAREN 15-ERA) HEMEN GARBIKETAK ENPRESAK AURKEZTUTAKO FAKTURA ORDAINTEKO AGINDUA.**

Bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

2016ko martxoaren 22ko Alkate erabakiz (322. zenbakiduna) hartutako erabakia, ondoren hitzez hitz transkribatzen dena, **berrestea**.

**ALKATEAREN ERABAKIA**

**ZENBAKIA:** 00322

**DATA:** 2016/03/22

**GAIA: UDAL ERAIKINAK GARBITZEAGATIK (OTSAILAREN 16-TIK MARTXOAREN 15-ERA) HEMEN GARBIKETAK ENPRESAK EGINDAKO FAKTURA ORDAINTEKO AGINDUA.**

**ESPEDIENTEA:** 2016IGER0006

**INTERESDUNA:** HEMEN GARBIKETAK S.L. UNIPERSONAL

*HEMEN GARBIKETAK SLU enpresak 2016ko martxoaren 15ean 10 faktura aurkeztu ditu (483 zenbakitik 489 zenbakirakoak), 2016ko otsailaren 16tik martxoaren 15era hainbat udal eraikin garbitzeko emandako zerbitzuari buruzkoak.*

*Martxoaren 18an egindako txostenean, idazkari-kontuhartzaileak legezketasun eragozpena jarri dio espediente horri, horretarako kontraturik ez dagoelako.*

*Udal zerbitzu teknikoek faktura horiek ordaintzearen aldeko txostena egin dute, alegatuz zerbitzua egoki eta merkatuko ohiko prezioetan eman dela.*

*Kontuan hartuta faktura horiek ordaindu ezean fede onez ari diren hirugarrenak kaltetuko liratekeela (kasu honetan, HEMEN GARBIKETAK SLU) eta administrazio honek bidegabeko irabaziak izango lituzkeela.*

*Eragozpenei buruzko erabakia hartzeko organo eskuduna Udalbatzarra bada ere, ezin da itxaron hurrengo osoko bilkurara arte horri buruzko erabakiren bat hartzeko. Osoko bilkura urtarrilaren bukaera aldera egingo dela aurreikusten da, eta ordura arte itxaroteak merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen uztailaren 5ekoa 15/2010 Legean ezarritako epea ez betetzea ekarriko luke.*

*Aurrez esandakoan oinarrituz, eta kontuan izanik zerbitzuaren kostua finantzatzeko behar besteko aurrekontu izendapena dagoela, Alkate naizen honek honako hau*

### **ERABAKIDUT**

***Bat.-*** 2016ko otsailaren 16tik martxoaren 15era arte hainbat udal eraikin garbitzeko emandako zerbitzuari buruz 2016ko martxoaren 15ean HEMEN GARBIKETAK SLU enpresak egindako fakturak ( 483 zenbakitik 489 zenbakirakoak) ordaintzeko agintzea.

***Bi.-*** Hurrengo osoko bilkuran erabaki hau Udalbatzarrari aurkeztea, berretsi dezan.

### **18.- 2016-2019 DIRU LAGUNTZA PLAN ESTRATEGIKOAREN LEHENENGO ALDAKETA ONARTZEA.**

Udalbatzarrak, 2016ko otsailaren 23an egindako bilkuran, ondorengo erabakiak hartu zituen:

*Lehenengoa.- Hasiera batean onartzea Eskoriatzako Udalaren 2016-2019 diru laguntzen plan estrategikoa.*

*Bigarrena.- Plan hori jendaurrean jartzea 30 lanegunez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita, nahi duenak plana aztertu eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jarri edo iradokizunak egin ditzan.*

*Hirugarrena.- Iradokizunik edo erreklamaziorik ez balego, plan hori behin betiko onartutzat joko da bestelako erabakirik hartu beharrik gabe.*

Hasierako onarpenaren aurkako erreklamazio edo iradokizunik egon ez zenez, eta Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49. artikularen c) letran apirilaren 21eko 11/1999 Legeak gehitutako azken paragrafoan aurreikusitakoaren arabera, Udalbatzarrak 2016ko otsailaren 23an hasiera batean hartutako erabakia behin betikotzat bihurtu zen.

Plan horren ERANSKINEAN 8. lerro estrategiko bezala landa guneen sustapena aurreikusten da.

2016ko ekitaldiko aurrekontua onartuta, eta aurrekontu hori onartutako planera egokituta, 2016ko aurrekontuan diru laguntza izendun berri bat jasotzeko egokitasuna planteatu da,

kreditu aldaketa bidez egingo litzatekeena, eta horrek indarrean dagoen diru laguntzen plan estrategikoa aldatzea eskatzen du.

Aurrez esandako guztia ikusita, Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Egungo 2016-2019 Diru laguntzen plan estrategikoa aldatzea, eranskinen jasotako diru laguntza bertan jaso ahal izateko.

## **8. LERRO ESTRATEGIKOA: LANDA GUNEEN SUSTAPENA.**

### **B) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: ZARIMUTZEKO AUZO LOKALA**

HARTZAILEAK: MUITXU-ZARIMUTZ Elizateko Bizilagunen Elkarte

HELBURUA: Zarimutzeko San Pedro elizaren atarian dauden antzinako eskoletan auzo-lokal bat egokitzeko obrak: eraikin bat eranstea komuna egiteko.

LORTU GURA DENA: Elkartegintza sustatzea landa gunetan eta ekipamendu kolektiboak lortzea erraztea.

DIRU LAGUNTZA MOTA: Zuzena-izenduna.

2016ko KOSTEEN AURREIKUSPENA: 9.750,62 euro.

FINANTZIAZIOA: 0100.734.337.70.01 partida

### **19.- UDAL HONEN BETEBEHARRAK ORDAINTEKO AURREIKUSITAKO EPEAK BETETZEARI BURUZKO HIRUHILEKO TXOSTENA (merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldaratzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua).**

Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoa betez, Udalak obligazioak ordaintzeko hartutako epeak 2016ko lehen hiruhilekoan betetzeari buruz diruzaintzak egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 10 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

**20.- ESKORIATZAKO EH BILDU ETA IRABAZIK AURKEZTUTAKO MOZIOA: gure industria eta oinarrizko errentaren aldeko eta prekarietate eta pobrezia-aren kontrako printzipioetan udal akordioa.**

Udal taldeetako bozeramaleak ados jarri direnez Udaltzarrak onartzeko ekarritako mozioaren testuaren gainean, Aitor Zubizarretak, EH BILDUren eta IRABAZIren izenean, jakinarazi du bi talde horiek bere garaian aurkeztutako mozioa erretiratzen dutela.

Jarraian, udal talde guztien artean adostutako mozioa irakurri du, hona transkribatzen dena:

*GURE INDUSTRIA ETA OINARRIZKO ERRENTAREN ALDEKO, ETA PREKARIETATE ETA POBREZIAREN KONTRAKO PRINTZPIOETAN UDAL AKORDIOA.*

*1.- Egoera jasanezina pairatzen duten industria sektoreko langile guztiei gure elkartasuna adieraztea.*

*2.- 3/2012 Errege Lege Dekretu barruan dagoen lan erreformaren kontrako gaitzezpena adierazi eta bereu indargabetzea eskatzen du prekarietatea sortzen duelako, lan merkatuaren arautzea aldatzen duelako eta lan baldintzak eta soldatak baliogabetu eta narratzen dituelako.*

*3. Lan harremanetarako marko autonomia exijitzen dugu, Euskadin adostutako eta onartutako kontzertazioa, elkarrizketa soziala eta lan araudi propioa egiteko aukera ahalbidetuko duena.*

*4. Gizarte politiketan, ematen ari diren murrizketak salatzen ditugu, gutxiengo soldataren igoera nabaria eta pertsona zein sektore guztiei bizitza duin bat ziurtatzen duen oinarrizko errenta baten alde lan egitea eskatzen dugularik.*

*5, Udal bando bat argitaratzea mozio honen testuarekin eta bide batez aldarrikapen sozial hauen alde egiteko eskoriatzarrei dei eginez.*

*6, Akordio honen testua bai Gipuzkoako Foru Aldundiari bai Eusko Jaurlaritzari bidali, norabide honetan benetako neurri eraginkorrak hartzeko exijituz.*

Bozkatu ondoren, mozioa aho batez onartu da.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 19:00etan amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

## **1.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA**

Se da cuenta de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el 28 de abril de 2016 haciéndose entrega de un copia del extracto de las mismas.

De forma expresa se da cuenta de las Resoluciones de Alcaldía por las que se aprueban los expediente de modificación de créditos 1/2016, 2/2016 y 3/2016.

## **2.- PROPUESTA DE NOMBRAMIENTO DE JUEZ DE PAZ.**

Atendiendo que la elección tanto del Juez de Paz Titular y Sustituto corresponde al Pleno del Ayuntamiento.

Atendiendo que por acuerdo del Pleno de fecha 23 de febrero de 2016 se aprobaron los criterios para la selección y se convocó concurso mediante publicación del correspondiente anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 41 , de fecha 2 de marzo de 2016, así como en los Tablones de Anuncios del Ayuntamiento y del Juzgado.

Resultando que dentro del plazo de quince días establecido para presentar solicitudes han cursado solicitud dos personas.

Valorados los méritos alegados , de conformidad con la propuesta elevada desde el Tribunal Calificador y el dictamen de la Comisión Informativa de Gobierno y Finanzas, el Pleno, por unanimidad, ACUERDA:

*“Elegir a Dña. Miren Pilare Carrillo Amuchastegui Juez de Paz de Eskoriatza, y a D. Jon Iregui Ortiz de Zarate , Juez Sustituto, proponiendo su nombramiento a la Sala de Gobierno del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma del País Vasco; a la que a su vez se dará traslado de las circunstancias personales de los jueces propuestos.”*

## **3.- APROBACIÓN DE LAS TABLAS DE EVALUACIÓN DOCUMENTAL QUE RECOGEN LOS CRITERIOS DE LA COMISIÓN DE VALORACIÓN Y SELECCIÓN DE DOCUMENTACIÓN (COVASED) PARA LA ELIMINACIÓN Y CONSERVACIÓN DE SERIES DOCUMENTALES.**

En las siguientes ordenes se recogen las tablas de evaluación de documentos aprobadas por la Comisión para la Valoración y Selección de Documentos Dokumentuak (COVASED). En dichas tablas se regula que series documentales se deben de guardar en los archivos y cuales se han de eliminar.

- *ORDEN de 11 de julio de 2011, de la Consejera de Cultura, por la que se aprueban las tablas de evaluación documental.*
- *ORDEN de 3 de mayo de 2012, de la Consejera de Cultura, por la que se aprueban las tablas de evaluación documental.*
- *ORDEN de 31 de octubre de 2012, de la Consejera de Cultura, por la que se aprueban las tablas de evaluación documental.*
- *ORDEN de 28 de enero de 2013, de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura, por la que se aprueban las tablas de evaluación documental.*
- *ORDEN de 3 de junio de 2013, de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura, por la que se aprueban las tablas de evaluación documental.*
- *ORDEN de 20 de mayo de 2015, de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura, por la que se aprueban y se modifican las tablas de evaluación documental.*

